

DATORRENA

Lehengo eta gaurko irakaspenak

GORKA ELEJABARRIETA > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Poli(s)tika erreskatatu (I)

PELLO OTXANDIANO > 9

2020ko uztailaren 11 | XIV. urtea • 679. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



**JAUME FUNES: «NERABEEK MUNDUA BEREN
GURASOEK EZ BEZALA IKUSTEKO ESKUBIDEA
ALDARRIKATZEN DUT» > 18**

Idoia ZABALETA | FOKU



«Jakarta metodoa», komunistak
sarraskitzea estatu-erlijioa 04

«Bihotz Paris», euskararen xarma
kamisetetan 10

«Greenwashing»-a identifikatzeko
ariketa praktikoak 14

Jaume Funes: «Gurasoak
kezkatzeko gaude, baina nerabeek
heldu positiboak behar dituzte
inguruan» 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Lehengo eta gaurko irakaspenak
- 08 **Saioa Aginako Lamarain:** Akidura emozionala
- 09 **Pello Otxandiano:** Poli(s)tika erreskatatu (I)
- 13 **EXPRAI**
- 16 **Arantxa Urbe:** Esaten ez digutena entzuten ikasi
- 17 **Iker Barandiaran:** Bizi kultura
- 21 **Miren Azkarate Badiola:** Gorputz okerrak
- 21 **Antton Izagirre:** Urrunetik gidatua
- 22 **Izaro Goienetxea Urkizu:** Aurrerapen teknologikoak zeinu hizkuntza automatikoki itzultzeko



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Lehengo eta gaurko irakaspenak

Lehengo bideak bertute bat bazuen; argitasunak, elkarrizketak eta negoziazioak ekarriko zituen gatazkaren konponbide demokratikoa eta, ondorioz, akordioan, aitortzan eta erabakitze eskubidearen onarpenean oinarrituriko akordioa. Ondoren Euskal Herriak erabakiko zuen zer motatako harremana izan nahi zuen Estatuarekin. Ez zen gertatu. Bide berrian ez dago horrelako argitasunik, helburuak eskuratzeko zer lortu eta egin behar den ez baitago batere argi.

Erabakitze eskubidearen onarpene eta erreferendum adostu bat beharrezkoak al dira? Eskoziar bidea da ondorioz jarraitu beharrezkoa? Berdintasunak berdintasun, Madrilen eta Londresen arteko diferentziak oso nabarmenak dira eta argi dago gaur egun espainiar Estatuak ez duela bide hori jorratuko. Zer egin behar dugu orduan? Espainia demokratiko bat iritsi arte itxaron? Eta ez bada sekula iristen? Hori al da euskaldunon patua? Ez dut uste.

Adostasunik gabeko bidean ez dago arau argirik. Indar harremanean dago gakoa. Indar nahikoa eskuratu behar da bai barne mailan bai kanpo mailan akordioa behartu edo saltoa eman ahal izateko. Ez dago bidelaburrik. Independentismoa hegemoniko bihurtu behar da Euskal Herrian. Ahalik eta indar gehien lortu. Eta ez dakigu botoen %51, %60 edo %70 beharko ditugun. Nire ustez ez dago gaur-gaurkoz hori jakiterik, eta, horregatik, mesede gutxi egiten dute bai botoen %51 nahikoa ez direla esaten dutenek bai nahiko direla diotenek. Eztabaida hutsalak dira. Kanpoan ere konplizitateak eraiki behar dira, landu, nazioarteko aitortzarik gabe ez baitago estatu independente bat eskuratzetik. Bide adostuan ez da arazorik egongo, baina bidea adostua ez bada, aitortza lortzea izango da borroka klabeetako bat.

Bide berrian aurrera egingen jarraitzeko, borroka elektoralak eta instituzionalak berebiziko garrantzia hartzen dute, beharrezkoa baita ahalik eta botere kuota altuenak lortzea. Ahal den neurrian ahalik eta ins-

tituzio gehien bete behar dira independentistez. Bide hori jorratzen dugun heinean, garaipen elektoral horiek lantzen eta lortzen ditugun aldi berean, behar-beharrezkoa da zenbait gauza kontuan hartzea.

Bat, borroka elektoralak borroka tresna bat da, ez helburua.

Bi, helburua ez da gobernua eskuratzeko, baizik eta gobernua eskuratzeko gure helburuen lorpenean aurrera egin ahal izateko.

Hiru, ezin da borroka elektoralak gutxietsi, botere eta babes kota handiagoak eskuratu gabe nekez lortuko baititugu gure helburuak. Gauzak ez dira beltzak edo zuria.

Lau, hemen gatazkaren oinarria ez da aldatu eta parean daukagun arerioak ez du gaur-gaurkoz erabakitze eskubidea onartuko; ez du, ondorioz, gatazkaren konponbide demokratiko bat bilatuko. Horrek bai ala bai esan nahi du, bidearen momentu batean edo bestean, paretaren kontra talka egingo dugula berriz ere. Ezin dugu sekula ahaztu paretak hor egoten jarraitzen duela.

Bost, bakarrik oso zaila izango da. Euskal Herrian eta kanpoan ere bidelagun gehiago eta berriak eskuratu behar ditugu. Kataluniarekin prozesua sinkronizatzen saiatu beharra daukagu, elkarrekin jo, Estatuan eta nazioartean, elkarrekin indar gehiago, aukera gehiago izan ditzakegulako.

Hauteskunde bezpera da, egin ahal zena eginda dago eta egiteko geratu dena beste baterako utzi behar da. Ezin dugu momentukoa, egunerokoa deskuidatu, baina ezin ditugu epe ertaina eta epe luzea ere ahaztu. Bi abiadura, bi erritmo eta bi begirada horiek batera jorratu behar ditugu. •

Adostasunik gabeko bidean ez dago arau argirik. Indar harremanean dago gakoa: akordioa behartzeko indar nahikoa lortu behar da bai barne mailan bai kanpo mailan

«JAKARTA METODOA»

Komunistak sarraskitzea estatu-erlijioa zen, munduari forma eman zion gurutzadan

Salvador Allende Txileko presidentetzara eraman zuten 1970eko hauteskundeen ondoren, pintada eta mezu misterioitsuak azaldu ziren Santiagoko auzo aberatsetan eta ezkerreko gobernu berriko hainbat kidek jaso zituzten postaletan: “Jakarta badator”.

Hamar urte lehenago azaldu izan balira, itxaropenerako seinaleztat hartuko zituzten. Izan ere, 1950 eta 1960ko hamarkadetan Indonesiako Sukarno presidentea (Herbehereen botere koloniala garaitu eta artxipelagoa batu zuena) Hirugarren Munduko mugimenduen neutraltasunaren eta antiinperialismoaren aldeko erreferente oso ezaguna zen. Asiako, Afrikako eta Hego Amerikako herrialdeetako ekintzaileek, independentzia lortu berri zuten nazioek, asko estimatzen zuten, Gerra Hotzeko superpotentzien aurrean grabitate-zentro alternatiboa eskaintzen zuelako.

1970. urtean, baina, Txileko ezkerrek bazekien “Jakarta badator” hori indarkeria mehatxua zela. Ordurako Indonesia Suharto jeneralaren atzaparretan zegoen, 1965. urtean hartu baitzuen boterea, oraindik ere oso iluna eta informazio askorik gabeko estatu-kolpe bat garaitu ondoren. Bi urtean, milioi erdi eta milioi bat pertsona artean hil zituen, komunistak, ustezko komunistak edo komunista potentzialak izateagatik. Beste milioi luze bat kontzentrazio eta lan esparruetan sartu eta desagerrarazi zuen, hamarkada luze-etarako. Erraz idazten da, ia bi milioi pertsona! Zertarako eta Indonesiako Alderdi Komunista (KPI) suntsitzeko, inoiz ar-

 **POLITIKA** / Mikel Zubimendi Berastegi

Indonesian, Txilen edo Brasilen, iraganean Suhartorekin bezala orain Bolsonaroarekin, «Jakarta» hitzak kode bat adierazten du, mezu argi bat: AEBekiko leialak diren gobernu autoritario eta kapitalisten aurka altxatzen direnak masakratzea. Aurkari politikoak desagerraraztea, damurik gabeko estatu-terrorismoa.

1965eko urtarrileko argazkian, soldaduaren fusila, atxilotutako komunista indonesiarrari gertutik apuntatzen. GAUR8

mak hartu ez zituen eta Txinako eta Errusiako alderdi komunisten ostean munduko handiena eta oso eraginkorra zena. Orduz geroztik, antikomunismo armatuaren kode bilakatu zen “Jakarta”, inspirazioa, ezkerre deuseztatzeko eskuliburua.

KODE BILAKATUTA

Zer gertatu zen Indonesia antiinperialismoaren itsasargi



izatetik komunisten kontrako genozidioaren eredu bilakatzeko? Zergatik zaigu hain ezezagun Indonesiako indarkeria hura guztia? Eta nola iritsi zen “Jakarta kodea” Txile edo Brasilera?

Euskal Herrian badugu Hego Amerikari buruzko ezagutza handiagoa, eta, seguru asko, antzekotasun handiak aurkituko ditugu AEBek Indonesian eta Hego Amerikan jokaturako paperen artean. Egia da, bestalde, Txileko kolpistek ez zutela zertan Pazifikoa gurutzatu ezkerren aurkako masazko estatu-biolentziaren adibide bila. Etxetik gertuago zuten, esaterako, Guatemala; CIAk hirugarren saiakeran, 1954an, Jacobo Arbenz presidente erreformista kargugabetu eta boterea Armadaren buruari eman zionean, “berehala hil beharrekoak” ziren guatemalarren zerrenda luzea zeukan.

Zergatik orduan Jakarta? Eskala kontu bat bada: munduko bosgarren herrialde jendetsuena da, eta herrialde musulman handiena. Komunismoaren aurkako borrokan koroaren harribitxia zen, Txina galdu ondoren; AEBentzat irabaz zitekeen garaikur handiena zen, Vietnamgoa baino askoz ere handiagoa. Eta zaku berean Brasil sartuz gero, ondo baino hobeto.

ESKALA, METODOA ETA HELBURUA

Indonesiarrak edo nazioarteko gaietan adituak ez garenok ez dakigu askorik artxipelagoan 1965-1966 urteen artean gertatu zenaz. Indarkeria eskala eta egia lurperatuta egon dira. Suhartoren kolpearen ondorengo diktadurak munduari gezur handi bat esan zion, bizirik irten zirenak kartzelara sartu zituzten eta horieta-



Jakarta, 1965eko abendua; soldadu armatu bat, ustezko komunistak zaintzen.
GAUR8

tik atera ziren apurrak ikaratu egiteko. Baina horrek ez zuen axola. Indonesiako sarraski apokaliptiko haren ondoren, mutilaturako hilotzez bete zen nazioa, AEBen gertuko aliatu bilakatu zelako.

Washingtonek propaganda antikomunista finantzatu eta bere sokako indarrak armatu ordez, Indonesiako (eta Brasilgo) Armada ideologikoki elikatu eta teknikoki prestatu zuen. Esku hartzea ez zen munduaren begietara bistakoa izan; ez Guatemalan CIAk egin zuena bezala, edo 1953an Iranen eta 1954an Filipinetan. Xorro-xorro Kansas estatuko base militar batera eraman zituzten armadako kideak eta han dena prestatu zuten, eta abagunea iritsi zenean bi herrialdeetako armadak boterea

eskuratze eta aurkariak jartzeko prest zeuden.

Indonesiako komunisten aurkako sarraskia parekorik gabea da, ez soilik bere eskalagatik eta erabilitako metodoengatik, baita lortu zituen helburuengatik ere. Munduko alderdi komunista handienetakoa zeharo suntsitzeaz gain, mende erdi pasatu ondoren, “komunismo” hitzak debekatuta jarraitzen du, izen madarikatua da, tabua.

BIDE POLITIKOA ITXI

Eskala bezain handia izan da genozidio horren egileen zigorgabetasuna. Suhartok 30 urtez gobernatu zuen Indonesia. Franco eta frankistekin gertatu bezala, hausturirik izan ez zenez, trantsizioak ez zituen kontuak kitatu, ez Egiaren Batzorderik edo an-

tzekorik sortu, ezta lurperatutako historiaren azterketa kritikorik egin ere, ezer ez, deus ez.

Egileen erabateko inpunitatearen tamainakoa izan zen biktimizekiko isiltasuna. Hori baita Indonesiako sarraski haren ondarea, munduko ezkertiar guztientzako mehatxu beldurgarria: desagerraraziak izan zaitezke, ehunka mila pertsona, bi milioi, eta inork ez ditu kontuak eskatuko.

Txileko Salvador Allenderen heriotza tragikoak bezala, Indonesiako sarraskiak ezker armak hartzera bultzatu zuen, gainera. Nahita edo nahigabe, parte hartzeko bide guztiak itxita, hauteskundeak irabazi arren desagerrarazteraino eraso egiten dutenean, zer bide gelditzen da? Nondik jo? Ezaguna da erantzuna.

AEBEN MUTILA

1965ean indonesiar gehien-tsuen ez zekiten nor zen Suharto jenerala. Baina desklasifikatu berri diren kableen arabera, 1964tik CIAk AEBen interesen aldeko “lagun” eta antikomunistatzat jotzen zuen. Kableotan, botere hutsu-nea egonez gero, militarren eta zibilen arteko koalizio antikomunistaren aukera iragar-tzen zuten.

Nola iritsi zen Suharto bote-rera? Kuriosoa da, baina beste “estatu-kolpe” bat desegin on-doren, Irailaren 30eko Mugi-menduak emandakoa –labur-tuta G30S, “Gestapu” ere esaten zioten, Gerakan Sep-tember Tiga Puluh-ren labur-dura–. Honek 1965eko urri-aren 1ean hasi zuen operazioaren nondik norako-ek argitu gabeko misterio iza-ten jarraitzen dute. Tentsio handiko egoera zen armarik gabeko komunisten eta AEBek babestutako militarren artean. Inteligentzia zerbitzu britai-niar eta estatubatuarrek bi al-deen arteko gatazkak elikatu zituzten. Eta Sukarno bi alde-en artean mantentzen zen. Irailaren 30eko Mugimenduko buruek soldadu taldeak bidali zituzten Armadako zazpi jene-ral bahitzera, eskuin muturre-ko kolpe militarra prestatzen ari zirela egotzita. Sei jeneral hil zituzten eta heriotza ho-riek Indonesiako Alderdi Ko-munista (PKI) sarraskitzeko ar-gi berdea, aitzakia, izan ziren.

Suhartok hartu zuen Arma-daren gidaritzza estatu-kolpe odoltsua gauzatzeko. Burutu gabeko kolpe haren arduradu-na PKI zela esan zien herrita-rreri, eta hildako sei jeneralak deabruzko erritu batean hil zi-tuztela; Alderdi Komunistari lotuta zegoen Gerwani emaku-meen mugimenduko kideak



ekarri zituztela biluzik dantza egitera, emakumeek jeneralak torturatu eta mutilatzen zituz-ten bitartean, hil aurretik ba-rrabilak moztuz eta begiak ateraz; Txinak ezkutuan ar-mak eman zizkiela... Gezurra zen guztia, Voice of America, BBC eta Radio Australia komu-nikabidetako albistegiek haus-potu zuten gezurra.

AEBek hasiera-hasieratik la-gundu zioten Suhartori, bere propaganda zabaltzen eta na-rratiba antikomunista ezar-tzen. Komunikazio sare mugi-

Txinako eta Errusiako alderdi komunisten atzetik munduko handiena zen Indonesiako Alderdi Komunistaren kontrako sarraskiaren bi irudi. GAURB

korrak eman zizkion Indone-siako Armadari. Lehen unetik herrialdearen lider gisa aitor-tu zuten Armada, nahiz eta le-gez Sukarnok presidente iza-ten jarraitzen zuen.

Ordura arte herriaren babes zabala zuen PKI geldiarazten saiatu ziren. Alderdi musul-man atzerakoiak diruz horni-tuz hasi ziren, baina alferrik. PKIk gora egiten zuen hautes-kundeetan. Saiatu ziren era as-kotan, baina ezin. AEBetako enbaxadore Marshall Greenek Suhartok kolpea eman ondo-

rengo kable batean argiro esan zuen; «orain dago PKIren aur-ka gogor jotzeko aukera, orain edo inoiz ez».

MAMUAK, BIZI ETA MEHATXAGARRI

Brasilgo Egiaren Batzordeak lortutako informazioen arabe-ra, “Operação Jacarta” diktadu-ra militarren sarraski plan sekretu baten izena zen, Bra-silgo Alderdi Komunista sun-tsitzea xede zuen “Operação Radar” zabalago baten parte. Ordura arte, Armadak herrita-rreren altxamenduen aurka zu-zentzen zuen indarkeria. “Ope-ração Jacarta”, aldiz, plan ezkutua zen, gizarte taldeetan eta komunikabideetan zihar-duten Alderdi Komunistako kideen kontrako estatu-terro-rismo plana.

“Operação Jacarta”-k Brasi-len edo Txileko Santiagoko “Ya-karta Viene”-k, portugesez izan edo gaztelera, esanahi argia zuen: Komunistak masiboki erailtzea, AEBekiko leialak zi-ren erregimen autoritario kapi-talisten aurka zeudenak sarras-kitzeko estatuak antolaturiko operazioa. Aurkarien desager-pen behartua esan nahi du, da-murik gabeko estatu-terroris-moa. Hego eta Erdialdeko Amerikan maiz eta oso gogor erabiliko zena ondorengo bi hamarkadetan.

Indonesiako gertakari odol-tsu haien mamuak mundua mehatxatzen du oraindik ere. Adibidez, 2016. urtean, Brasi-len, munduko hirugarren de-mokrazia handiena deitzen zu-ten herrialdean, Dilma Rousseff gerrillari ohi eta he-rrialdeko lehen emakume pre-sidentea kargugabetu zuten teknizismo baten aitzakian, eta parlamentu-saio hartan Jair Bolsonaro hartu zuen mikro-fonoa; *impeachment* edo kar-gugabetzearen botoa Carlos Al-

berto Brilhamte Ustrari dedikatu zion, koronela zela Rousseffi egin zizkioten torturetan ikusle izan zenari. Neurritz kanpoko probokazioa izan zen, iragane-ko diktadura antikomunista zuritu eta birgaitzeko ahalegina, eskuin muturraren asmoen adierazlea.

Brasilgo diktaduraren trantsizioak demokrazia mota xelebre bat ekarri zuen; horren adibide da elite politiko eta ekonomikoek beren interesei begira mehatxutzat jotzen zituzten Rousseff edo Lula presidenteak oztopo handirik gabe kargugabetu izana. Gerra Hotzeko deabruak deitu zitzaizkion, nahi beste aldiz, nahieran, haien alde lerratu zitezien.

Zoaz orain Jakartara eta parte hartu, edo saiatu parte hartzen, 1965eko gertakariak argitzeko ikertzaileen batzar batean. Komunismoa berpizten saiatzea-
gatik salatuko zaituzte –50 urte geroago oraindik ere legez kanpoko da– eta jende andana bat “komunistak bizirik erre” garrasika azalduko zaizu, ikara hezurretaraino sartuz.

KOINTZIDENTZIARIK EZ

Indonesia eta Brasilen arteko antzekotasun horiek ez dira kointzidentzia hutsa, 1960ko hamarkadako haustura traumatikoetan dituzte sustraiak.

Izan ere, Indonesian komunista izateak bizi osorako markatzen zaitu, deabrua bazina be-

Indonesiakoak ez du parekorik, ez eskalagatik eta metodoengatik soilik, baita lortutako helburuagatik ere: munduko hirugarren alderdi komunista handiena zeharo suntsitzea

Zer gertatu zen Indonesia antiinperialismoaren itsasargi izatetik komunisten kontrako genozidioaren eredu bilakatzeko? Nola iritsi zen «Jakarta kodea» Txile eta Brasileraino?



Goian, 1961. urtean, Indonesiako Sukarno presidentea, AEBetako presidente J.F. Kennedy eta presidenteorde Lyndon Johnsoekin, Etxe Zurian. Eskuinean, Sukarno, gero bera kargugabetuko zuen Armadaren ekitaldi batean. GAUR8



zala, eta, sarri, “gaitz” hori seme-alabengana pasatzen dela pentsatzen da, anomalia genetiko baten ondorioa balitz bezala. Komunisten seme-alabak tor-

turatuak izan ziren. Emakume batzuk haientzat umezurtzetxeak antolatzeagatik epaitu zituzten. Sarraskia gertatu eta urteetara, enpresaburu indo-

nesiar ospetsu batek berriki hau esan du: «Erantzun militar sendo bat behar da, komunisten seme-alabak hazten ari baitira». Egin kontu.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Akidura emozionala

Pertsonok, eskakizunen gainkarga edo esperientzia zailen pilaketa dela eta, emozionalki nekatu egin gaitzake.

Nekea pilatzen doan heinean, apur bat deprimitzen hasten gara.

Hasiera batean ez zeuden trabak eta arazoak aurkitzen ditugu, denbora motelago doala sentitzen dugu, eta komentario soil batek modu susmaezin eta bidegabean alda gaitzake. Gure energia eta tentsioa behar bezala kontrolatu eta gidatu gabe, erne egoteko gaitasuna gal dezakegu, eta, ondorioz, gure bizitzaren alderdi guztietan energia murriztu egingo da. Energia eta tentsio hori gogo-aldartearen sentsazioa da, egiten dugun gauza bakoitzean hain eragin handia duena. Gogo-aldartek beti mugiarazten gaituzte. Motibatu egin gaitzakete, ekitera bultza gaitzakete. Eta kontrakora ere bultza gaitzakete, itxi edo itsutu egin gaitzakete. Mentalki nekatuta dauden pertsonak beren errealtatearen pertzepzio negatiboagoa dute, eta, gainera, maila emozionalean askoz minberagoak dira.

Akidura emozionala ahaleginaren gainkargarengatik iristen den egoera bat da. Kasu honetan, ez gara laneko gehiegikeriez bakarrik ari, gatazkez, erantzukizunez edota estimulu emozional edo kognitiboak onartzeak suposatzen duenaz ere bagabiltza. Akidura emozionala neke mental gisa esperimintatzen bada ere, neke fisikoa ere handia izaten da. Etortzen denean, astuntasun sentsazioa dago, aurrera egiteko ezintasuna. Inertzia negatiboan erortzen gara, eta zaila da hortik irteeta.

Izan ere, neke emozionalak neke fisikoak adina edo gehiago pisatzen du. Emozionalki erreta gaudenean,



Neke emozionalak neke fisikoak adina edo gehiago pisatzen du. GAUR8

energia xurgatzen diguten egoera horiek onartzeko ditugun baliabideak gaindituta daudelako izaten da. Era berean, konpondu gabeko zailtasun emozionalen zerrenda luze batek nekea eragiten digun pisu subjektiboaren sentsazioa ematen du. Ahitze psikologikoak, kezken, auto-eskakizunen, presioen, betebeharren eta antsietateen geruzetan, maizterrak, hau da, gu, preso hartzeko joera du, geure buruaz ahazteraino.

Gure buru eta bihotzaren apatia bartzertzeko modu bat, bizitzarekin modu sortzaileagoan konprometitzea da. Horrela, autoezagutzan oinarritutako ariketak gure zerumugaren aurreko leihoak bezalakoak izango dira, noizbehinka, apatiaren eta pisuaren haize zakarra joaten uzteko. Esaterako, zure bu-

ruarekin berriz topo egiteko baime-na ematea, eta, horretarako, egunean ordubete hartzea baino hoberik ez dago, ahalik eta estimulu gehien murriztuz. Ingurune lasai bat aurkitu, izatera eta egotera mugatuz. Gogoratu zerk duen lehentasuna zuretzat, zerk identifikatzen zaituen, zer maite duzun, zerk egiten zaituen zoriontsu.

Oso garrantzitsua da gure buruarekin sentiberagoak izatea. Horretarako, egunari bakarka egoteko tarte bat ematea baino hoberik ez dago. Arnasa hartzea, garenarekin eta nahi dugunarekin berriz konektatzea. Funtsezkoa da gure buruarekin ulermen eta ontasun jarrera gartztea. Bestela, lehenago edo geroago, ezinezkoa izango zaigu aurrera egitea. •

saioaaginako@gmail.com

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Poli(s)tika erreskatatu (I)

gande honetako hauteskundeak igarota eta uztailearen 17an Herri Elkargoko lehendakaria hautatuta, hauteskunde ziklo oso bat itxiko da Euskal Herrian. Eta, hauteskunde ziklo bat itxi eta hamarraldia estreinatzearekin batera, fase politiko berri bat abiatuko da. Izan ere, covid-19ak nahi izan du 2020. urte hasieran agertu eta hamarraldi gako bati hasiera eman, hamarraldi bat zeinak norabide-aldaketa sakon bat eskatuko duen orain arteko politika askotan. Covid-19ak krisi aroaren bizipen erreal bat ekarri digu, sentigarri egin du, inoiz ez bezala, bizi gaituen gizarte molde hauskorra eta etorkizun ziurgabea; krisi aro globala gure bizitzetara ekarri du, esfera sozialera zein intimora. Nahikoa argi dago dagoeneko arrisku handiko garai berri batean murgildu garela.

Egokiera ona atzera begiratu eta igaro berri dugun hamarraldiaren herri-ikuspegiko bilana egiteko. Ez baita edonolako garaia izan iragan berri dugun hamarraldi hau, ETaren zikloaren itxieraren hamarraldia. Dinamika soziopolitiko berri bat abiatu bide zuena, ordura arte posible izan ez zena posible egingo lukeena. Eta, ezbairik gabe, herri-ikuspegitik begiratuta, gauza asko gertatu dira azken hamar urteetan, bere neurrian baloratzen jakin behar direnak: Nafarroan aldetaren aldeko gobernuak abiatu eta eskuin-mutur nabarristaren hegemonia pitzatu da; Ipar Euskal Herrian Lurralde Elkargoa osatu da; ETaren bukaera bururaino eraman da, gizarte zibilaren bultzadaz eta estatuen borondatearen kontra; erabakitze eskubidearen aldeko gizarte-ekimena hauspotu da; independentziaren aldarrikapena inork inoiz eraman ez duen punturaino eraman du Kataluniak; estatuen egiturazko krisia sakondu egin da; gizarte-mobilizazio forma berriak agertu dira indarrez. Bilanaren alde positiboari begiratzuz gero, asko da aurreratu dena.

Balantzaren beste aldean, iragan hamarraldia Kuxabank-en bankarizazioaren garaia izan da, baita Euskaltelen salmentarena ere. Gipuzkoan, abertzaleen arteko lankidetzaren hipotesia frogatu ahal zitekeen lurraldean, “atez atekoa berdin ETA” operazio populistak trumpianoak hipotesi hori bazterrean botata utzi du; hiru eremu administratiboetan Euskal Herriaren

autoeraketaren aldeko lehendakariak izanik, aukera paregabea galdu da erreferentzia nazionala indartzeko; Autonomia Erkidegoan erabakitze eskubidea instituzionalizatuko lukeen akordioa ez da eztabaida parlamentariora eraman nahi izan. Bilanaren alde ilunari begiratzuz gero, galdutako aukeren hamarraldia ere izan da iragandako hau.

GALDUTAKO AUKEREI ERREPARATU

Bilan guztiek dute alde iluna eta alde positiboa. Gauza bakoitza dagokion neurrian baloratu behar da. Baina bidea urratu nahi dugunok, aukera berriak ireki nahi ditugunok, behartuak gaude galdutako aukerei erreparatzera. Eta zentzu horretan, esango nuke, iragan hamarraldian herri hau hasi berri dugun hamarraldi gako honi begira sendotzeko aukerak galdu direla, eta ez nolanahikoak. ETaren zikloaren amaiera herri gisa errentabilizatu baitzitekeen, eta modu askotara. Izan zitekeen euskararen aldeko akordio soziopolitiko handi baten bidez, euskal enpresa eredu baten aldeko ekimen handi bati esker, euskal hezkuntza sistemaren eraberritze errotiko batekin, erabakitze eskubidearen aldeko akordio politiko bat tarteko, edo beste hainbat modutara. Baina ez. EAJk, euskal oasiaren gisako narratiba kontserbadoreak baliatuz, herri honen sabai aspirazionala beheratu du eta izan ditzakegun gaitasun komunitarioak blokeatu ditu.

Bidea urratzeak zein dinamika soziopolitiko eskatzen duen sakon aztertze garaia da, bai gizarte politikoan eta bai gizarte zibilean. Irudipena daukat ETaren aroan posible izan ez zena ETaren ondoko aroan posible egin nahi izatearen automatismoa presenteei dagoela. Eta badagoela belaunaldi bat herrigintzan aurreko faseko bizipenek gehiegi baldintzatzen dutena. Gizarte zibil autonomoak bere buruari egozten dion misioa –berdin euskalgintzak zein erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduak, adibidez– ezin da izan EAJren eta EH Bilduren arteko akordio politiko bat erdiesteko bide orria proposatzea. Besteak beste, iragan hamarraldiak frogatu duelako saiakera horiek, laudagarriak izanagatik ere, ez direla eraginkorrak. Poli(s)tika erreskatatzeko garaia da. •

EAJk, euskal oasiaren gisako narratiba kontserbadoreak baliatuz, herri honen sabai aspirazionala beheratu du

«BIHOTZ PARIS», EUSKARAREN XARMA KAMISETETAN

Idoia ERASO

Nora Vivancok eta Aran Gonzalezek, Parisen egonda ere bihotza Euskal Herrian izanik, duela urtebete Bihotz Paris moda marka jasangarria sortu zuten. Bi gaztek, bi (a)hotsek, bat eginez, euskal hitzen mundu-ikuskerara propioa eraman dute kamiseta eta kirol-jertseetara.

Bihotz» hitza daraman kamisetak izan du arrakasta handiena bi bilbotar gazteek sortu dituzten kolekzioen artetik; kamisetan bertan hitz hori “bi” eta “hots” hitzak elkartuz sortua dela azaltzen dute ingelesez.

Baina ez da bakarra, kamiseta modeloetan aukera zabala dute: “maitemin”, “zoragarri”, “ilargi”, “bizi-poz”, “hondartz”, “ortzadar”... Denetan euskara da oinarria, eta horren bitartez gure hizkuntzak munduari begiratzeko duen modu propioa zabaldu nahi dute. «Gure helburua, markaren bitartez nazioartean euskara sustatzea da; Parisen bizi gara, eta unibertso erromantiko bat sortu dugu hizkuntzaren inguruan», azaldu du Nora Vivancok Aran Gonzalezekin batera sortu duen markari buruz.

Mundu erromantiko horretan kokatzeko, eta sortzen laguntzeko, hitzak «etimologia politaren arabera eta kutsu poetikoa» kontuan hartuta aukeratzten dituzte. Adibide bat jarri digu Vivancok: «‘Jakin-min’ hitza aukeratu dugu, oso polita iruditzen zaigulako eta, gure ustez, gure jarraitzaileek Instagramen, adibidez, ‘jakin-min’ handia daukate-lako, eta hori asko gustatzen zaigu».

Markaren inguruan sortu duten mundu bereziak jantzien estiloarekin eta hitzen aukeraketarekin bat egiten du. Interneten irudien bitartez ere hedatzen dute ikuspegi hori. Hala, Bihotzparis.com webgunean edo Instagram-eko kontuan elastikoak jantzita ikus ditzakegu bi gazteak Pariseko karriketan zehar. «Pariseko mundu *vintage* horrekin fusio bat egitea erabaki genuen. Gainera, pena ematen zigun Frantzian euskara ez ezagutzeak, ze parte



batean euskaraz egiten da, eta pentsatu genuen nazioarte mailan ere eza-gutarazi behar genuela», azaldu du Gonzalezek.

Beraien lana zabaltzeko lekua da Internet, baita saltokia ere. Moda marka jasangarria dela argi dute bi neskek, eta jasangarriaren lehen ezaugarri horretan oinarritzen da, jantziak eskaeraren arabera egiten baitituzte. «Garantzitsua da *preorder* moduan lan egitea; eskari bat daukagunean, eskatutako hori ekoizten dugu. Ez daukagu stock-ik tailerrean, beste modu batean egiten dugu, ekologikoagoa da,

zeren eta horrela ez dugu gehiegi ekoizten, behar dugun kopurua bakarrik», kontatu du Gonzalezek. Eskaera jaso eta bost bat egun behar izaten dira jantzia egin eta bidaltzeko moduan izateko, eta eskatzaileak jasotzeko zortzi bat egun behar izaten dira.

Kamiseta eta kirol-jertseak inprimatzeko erabiltzen duten tailerra Borden dago, eta brodatzekoa Parisen dute; hurbiltasun horrek eskaeraren arabera lan egitea ahalbidetzen die eta era jasangarriagoan egitea; oiha-lak kotoi organikoz eginak dira, eta, bestalde, langileen baldintza onak

Jantzietan agertzen diren euskarazko hitzek aditzera ematen duten ikuspegi erromantiko eta poetikoak bat egiten du horren inguruan sortu duten munduarekin, Pariseko ikuspegi «vintage»-arekin

Marka jasangarria izatea garrantzitsua da sortzaileontzat; horretarako, eskatu ahala egiten dituzte produktuak, tailerrak Parisen eta Bordelen dauzkate, eta kamiseta eta kirol-jertseak egiteko kotoia ekologikoa da

errespetatzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak ere badituzte.

Eskaeren arabera produzitzeak beste aukera batzuk ematen dizkiela gaineratu du: «Ahalbidetzen digu nahi ditugun hitzak ateratzea testu moduan, eta ikusten badugu jendeak nahiago duela bat beste bat baino, dibertsifikatu ahal dugu eta modelo horri difusio handiagoa eman». Esaterako, hitz batek arrakasta handia baldin badauka, kirol-jertseetan ere jartzen dute.


Lehen urte honetan, espero baino zabalkunde handiagoa lortu dute Parisetik eta Euskal Herritik kanpo ere. «Lehen momentutik arrakasta handia eduki dugu, kolekzioak ateratzen hasi ginenetik urtebete pasa da, eta orain munduko beste toki batzuetatik erosten dizkigute». Horretan euskal etxeen sareak lagundu dituela azaldu dute, baina ez da hori bakarrik, produktuak sortzen duen interesa berezkoa baita. Parisen jendea elastikoa-ri buruz galdetzera hurbiltzen zaiela diote.

Hasieran, neskentzako kamisetak bakarrik egiten zituzten; orain, aldiz, unisex-ak ere bai, eta horrek arrakasta handitu du. Hemendik aurrera merkatua zabaltzeko prestatzen ari dira, dibertsifikatzeko bidean daude, osagarriak eginez, adibidez. «Ideia pila bat ditugu, eta asko gustatzen zaigugure komunitateak bidaltzen dizkigun mezuak entzutea; askotan ideiak ematen dizkigute, bururatuko ez litzazkigukeen hitzak proposatzen dizkigute. Beti ez gaude inspiratuta, eta jendearen laguntza izatea oso polita da».

Azken modeloa markaren lehen urteurrena ospatzeko atera dute; “Friends” telesail mitikoaren formatua hartuta “Lagunak” kamiseta sortu

Nora Vivancok eta Aran Gonzalezek euskaratik sortutako arropa markak arrakasta dauka mundu osoan.
GAUR8





dute. «Gure harremanetik sortu da marka, gure harremana, gure laguntasuna eta gure bidea ospatzeko egin dugu», azaldu du Gonzalezek. Esperimentzia pertsonaetik testuinguru sozialerako jauzia egin dute bere hitzek: «Guretzat abentura bat da, emakumeak izanda ez da beti erraza laguntzak izatea, aurrera jarraitzea eta errespetua lortzea, eta guk hori ospatu nahi dugu, emakumeak garela eta enpresa hau sortu dugula, bakarrik, beste herrialde batean, eta kristoren harrera ona izan duela».

Txikitatik ezagutzen dute elkar bi bilbotarrek eta, European zehar ibili ondoren, abentura Parisen elkartu zirenean hasi zela kontatu du Vivancok: «Aranek moda jasangarriko ikasketak egin zituen Lyonen, eta gero Parisera etorri zen *start-up* batean lan egitera. Ni Venezian eta Berlinen ibili naiz, arte

eta marketinaren munduan, eta Parisera etorri nintzen marketin eta *start-up*en munduan aritzera». Elkartu zirenean, enpresa edo marka bat sortzeko interesak batu zituen: «*Brain-storming* moduko bat egiten genuen, ideiak botatz eta bat-batean atera zitzaigun euskararekin egitea, kristoren herrimina genuelako; lau urte daramatzagu atzerrian bizitzen eta lan egiten, eta gure sustraiekin loturiko zerbait egitea bururatu zitzaigun».

HIZKUNTZA ETA MODA

Hitzen aukeraketa beraiek egin ohi duten arren, hizkuntzalariekin ere jorratzen omen dute, azalpenen zuzentasuna ziurtatze aldera. Ideia horren oinarrian, berez, Asier Etxepare filologoaren Twitter haria dagoela esan du Aran Gonzalezek: «Idazleekin ere lan egiten dugu, aholkuak jasotzen ditu-

gu. Bere ideiak ere hartu ditugu kontuan eta ingelesera eraman ditugu. Euskaltzaindian ere begiratzen dugu, oinarri egiazkoa dela ziurtatzeko». Zuzentasun etimologikoa behin ziurtatuta, markaren estiloarekin bat egiten dutenen aldeko hautua egiten dutela gaineratu du Vivancok: «Guk hautatzen ditugun azalpenak interpretazioak dira gehienetan. Batzuetan azalpen etimologiko ezberdinak daude baina, guk alde poetiko hori sustatu nahi dugunez, gustatzen zaiguna aukeratzen dugu».

Horri lotuta, eztabaida piztea ere atsegin dutela aitortu du Gonzalezek: «'Ilargi' adibidez, *The light of the dead* jarri dugu, baina batzuek diote 'hila-bete' hitzetik datorrela, beste teoria batzuk daude, baina guk beti esaten dugu ez garela Euskaltzaindia, eta gure ikuspuntua ematen dugu, beti ere

gure interpretazioak filologoekin komentatuz. Polita iruditzen zaigu debate hori izatea, gure euskal hitzek interpretazioak izatea».

Esanahiaren azalpena denborarekin garrantzia hartzen joan da kolekzioz kolekzio; lehen bilduman etiketan jartzen zuten; bigarrenean, hitza aurrealdean eta atzean azalpena, eta orain, dena aurrealdean. «Modelo berrietan hitzaren esanahia kamisetan agertzen da; horrela, kalean jendeak ere uler dezake», esan du Gonzalezek. Eta bere kideak gaineratu: «Batzuetan atzealdean dago; 'maitagarri' daraman pertsonak buelta ematen badu, esanahia aurki dezakegu: *Lovely* edo *Fairy*».

Kamiseta arrakastatsuenak horrela dio: «*In Basque we don't say 'heart', we say "bihotz", which comes from "bi" (two) and "hots" (beats), and we think is beautiful*».



EXPRAI

iRRITZIA:



* ESPAINOLEZ JATORRIZKOAN.



AZTARNA EKOLOGIKOA

Unai Garcia Ingurumen Teknikaria (Grunver Sostenibilidad)

Koronabirusak eragindako itxialdi garaian ohikoa izan da telebistan marka guztiak euren bezeroak eta langileak zenbateraino zaintzen dituzten aldarrikatzen ikustea. Musika hunkigarria, ume eta adineko pertsonen eguneroko bizitzako ausazko irudiak eta katilu batean idazteko pentsatutako esloganak. Horiek izan dira iragarki gehien osagarri nagusiak. Printzipioz, marka horien publizistengan sormen apur bat falta litekeela pentsa genezake, baina horrek ez luke garrantzi handirik eduki behar. Pare bat meme eta bideo sortuko lituzke, agian. Argudiatu liteke enpresa bakoitzak bere interesetarako aproposenak diren bideak erabiltzen dituela.

Demagun, hala ere, honakoa gertatzen dela: enpresa batek bere langileen ongizatea izugarri axola zaiola esaten du iragarki batean, baina bitartean Hirugarren Munduan arropak josteko umeak erabiltzen ditu. Iragarkiak ez du begibistako gezurrik esaten, baina egoera horretan ez dago argi markak bere irudia hobetzeko erabili duen bidea zilegi den ala ez.

Praktika hori ingurumenaren arloan gertatzen denean, *greenwashing* terminoa erabiltzen dugu.

ENPRESA KUTSATZAILEENEN ZURIKETA
Greenwashing terminoak “garbiketa berdea” esan nahi du, eta, hitzak berak dioen bezala, munduko enpresa kutsatzaile-

«Greenwashing»-a identifikatzeko ariketa praktikoak

Gizarteak gero eta era arduratsuagoan kontsumitzen du, eta, beraz, markak beren ingurumen-irudia garbitzeko marketin estrategia korapilatsuak barneratu dituzte. Kapazara proposatutako kasuetan «greenwashing»-a non dagoen antzemateko?

enak beren produktuek ingurumena errespetatzen dutela sinetsaraztean datzan marketing teknika bat da.

Gizarteak gero eta era arduratsuagoan kontsumitzen due-

nez, markak estrategia hau barneratu behar izan dute lehiakorrak izaten jarraitzeko. Lehen beraien produktua onena zela esatea aski zen, hori subjektiboa denez ez zutelako egia esaten ari zirela frogatu behar. Orain, aldiz, saltzen dutena “ekologikoa” ere badela demostratu behar dute. Eta, noski, ezin dutenez, eta iragarrietan gezurra esateak arazoak ekar diezazkiekeenez, teknika sotilagoak erabiltzen dituzte.

«GREENWASHING»-A IDENTIFIKATU

Greenwashing-a identifikatzea ez da lan erraza. Enpresa kutsatzaileen publizitate eta komunikazio agentzia handiak kontratatzen dituzte haien produktuak “berdez” margotzeko. Hala ere, adibide batzuk ikusteak etorkizunean praktika hori antzematen lagun gaitzake.

Ea hurrengo kasuetan *greenwashing*a non dagoen identifikatzeko gaitzake.

GUTXIEN KUTSATZEN DUEN AIRELINEA

Irlandan jatorria duen airelinea batek hurrengo kanpaina kaleratu zuen 2019an: «Preziorik baxuenak, emisiorik baxuenak». Haien esanetan, prezio oso baxuak dituztenez, hegaldi bakoitza goraino betetzen dute, eta, beraz, bidaiari bakoitzeko kutsatzaile kantitate gutxi isurtzen dute, gainerako Europako enpresekin alderatuta.

Ebazpena: Zerga gutxi ordaintzeko moldatzen denez, enpresa honek hegaldiak oso merke eskaintzeko ahalmena du. Hain prezio baxuak ditu, ezen berez lurrez hiru orduan



Markak «garbiketa berdea» erabiltzen dute beren irudia garbitzeko.


GAUR8

egin ditzaketen lekualdaketak hegazkinez egitera bultzatzen baititu bidaiariak. Datuei erreparatuz, azken zazpi urtean emisioak %50 handitu ditu enpresak, eta iragarkia atera zuen urte berean munduko hamar kutsatzaile handien zerrendan sartu zen, ordura arte konpainia elektrikoek bakarrik osatzen zutena. Sektore batzuk, izaeraz, ezin dira ekologikoak izan (hegazkingintza, erregai fosilak, etab.), eta, hortaz, kontrakoa transmititzen duen iragarki bat *greenwashinga* da.

ONTZIEN BIRZIKLAPENA ETA OSASUNA

Estatuan plastiko eta kartoizko ontziak bildu eta birziklatzeaz arduratzen den enpresak “Birikekin pentsatu” kanpaina jarri zuen abian duela urtebete. Iragarkia ilustratzeko erabilitako irudiak emakume bat erakusten zuen, aho eta sudurra estaltzeko hurrengo testuak maskara bat eratzen zio-la: «Birziklatzen duzun sei lata bakoitzeko, auto baten iheshoditik hamar minutuan ateratzen den kutsadurari aurre egiten diozu».

Ebazpena: Birziklatzeak erraustegietara bidalitako hondakin bolumena murrizten du, eta hurrengo produktuen ekoizpenerako lehengai gutxiago erabiltzea ahalbidetu. Hau da, birziklatzeak klima aldaketa ez areagotzeko eta mugatuak diren baliabide gutxiago kontsumitzeko bali du, baina ez arnasten dugun airea hobetzeko. Autoen iheshoditik ateratzen diren gainontzeko konposatuak dira gizakion osasunean kalte-



Sektore batzuk, izaeraz, ezin dira ekologikoak izan, hegazkingintza kasu. GAUR8

ak eragiten dituztenak (NOx-ak, metal astun partikulak, etab.), ez CO₂a. Markak, bere helburuak lortzeko, klimaren epe luzeko etorkizunera baino giza osasunera jotzea eraginkorragoa zela pentsatuko zuen, ingurumen-kontzeptuak nahastu arren. *Greenwashinga*, beraz.

BANKU ZUZENDARIA GROENLANDIAN

Espainiar telebistako abentura sail ospatuena Groenlandiatik emititu zen aurtengo urtarri-laren amaieran, gonbidatu gisa estatuko bankurik garrantzitsueneko zuzendaria zuela. Atzealdean klima aldaketaren ondoriorik ikusgarriena den hainbat glaziar-bloke puskatu eta itsasora jausten ziren bitartean, halako erronka izugarri baten aurrean banku handien zereginari buruzko elkarrizketari ekin zioten biek.

Gonbidatuak zenbait minutuz bere entitateak aldaketa klimatikoa geldiarazteko hartutako konpromisoa azaldu zuen, «niri gai hau super-importantea iruditzen zait», «wow», «ze pena» eta halakoak botaz.

Ebazpena: Energia sortzeko erabiltzen diren instalazioak ez dira autofinantzatzen, bankuak behar dira proiektu milioidun horiek aurrera eramateko. Bankuak dira, beraz, zuzenean zein energia-mota sustatzen den erabaki dezaketena. Elkarrizketan, entitate honetako zuzendariak klima aldaketa geldiarazteko bere bankuak eskain dezakeen «laguntzaz» hausnartzen du, estatuan erregai fosiletan oinarritutako zentral berrien finantziazio iturririk garrantzitsuena izanda. Benetako politikak bihurtzen ez diren

hitz hutsak *greenwashinga* dira.

ZER EGITEN DUZUE?

«Zer egiten duzue zuek ekologikoak izateko?», galdetzen die irakasle batek bere ikasleei 2010eko iragarki batean. «Nire etxean marka honetako ur botilatua edaten dugu», erantzuten du batek. Gero, off-eko ahotsak marka horren botila berri «ekologikoa» aurkeztu du, datu gehiagorik eman gabe.

Ebazpena: Ur botilatua dezente kaltegarriagoa da ingurumenerako txorrotakoa baino, botilaratze prozesuan plastikoa eta energia kontsumitzen direlako, eta erabilera bakarreko ontziek hondakinak sortzen dituztelako. Gainera, iragarkiak botila «ekologikoa» dela esaten du, botilaren plastiko birziklatu kantitateaz edo bere bizi-zikloan barneratu di-

ren jasangarritasun neurri posibleez ezer aipatu gabe. Ingurumenerako kaltegarria den jardura bat (ur botilatua edatea) keinu ekologiko bat bezala aurkeztea *greenwashinga* da.

LEGEA BETETZEA

Pintura-aerosol baten etiketan honako mezu hau irakur daiteke: «Ingurumena errespetatzen duen produktua (CFC-rik gabe)».

Ebazpena: CFCak kloro, fluor eta karbonoz osatutako gasak dira, atmosferako goi-geruzetara heltzean eguzkiaren erradiazioetik babesten gaituen ozonoa suntsitzen dutenak. XX. mendean esprai eta aerosol gehienek osagarri nagusia ziren, eragiten zuten ingurumen arazo izugarriaz ohartu eta debekatu ziren arte. Produktuak hogeitaz indarrean daraman ingurumenari buruzko legea betetzen duela aldarrikatzea *greenwashinga* da.

ONDORIOAK

Aurkeztutakoak kasu nahiko argiak dira eta, hala ere, batzuetan *greenwashinga* dela identifikatzea zaila da, publiko orokorrak ez duelako zertan eduki marka epaitzeko behar den informazio guztia. Hala eta guztiz ere, bestelako datu-rik eman gabe «ekologiko» hitza erabiltzea, ingurumen-kontzeptuak nahastea edo izaeraz kutsagarria den produktu baten kontsumoa ekin-tza jasangarritzat mozorrotzea *greenwashinga* izan daitekeela susmatzetik hurbilago egon gaitzeko orain.

Ea hurrengo ariketa sortan ikasitakoa aplikatzea lortzen dugun.



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Esaten ez digutena entzuten ikasi

Ekain hondarrean egin dugu topo. Garaiak eta egoerak eskatzen duen bezala, «zer moduz ari zarete?», galdetu diogu elkarri. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleekin ebaluazio saioak izan dituela kontatu dit, arduratuta ibili dela bizi seinalerik ematen ez zuten ikasle batekin. Bere harridurarako, ordea, esandako orduan agertu da mutikoa eskatutako proiektua besapean. Suabe-suabe hasi omen zaio galdezka gaixorik egon den, zerbait gertatu zaion... «ez naiz erantzutekoa» esan dio, serio-serio. Lankideen artean bolo-bolo dabiltza hitzordu telematikoetara kamera itzaliarekin, irudirik gabe, azaldu diren ikasleen kasuak. Antza, nerabeen artean zabaldutako kontsigna izan da. Badakigu beren garapenean ezaugarri garrantzitsua dela intimitate beharra. Eta eskatu diegu beren etxeko sukaldeetako sekretuak kideen begien aurrean jartzea... Ez ote du errebeldia puntu bat pantaila beltz horrek?

Eskola etxera joan den itxialdi garai luzean, etxekoak irakasle bailiran aritu diren sasoian, “eremu gris” infinitu bat sortu da etxeetara bidali ditugun lanen inguruan. Gehienetan ez dugu jakin proposamenak, jarduerak, ariketak eta abar kopiaitu dituzten, norbaitek egin dizkien... baina horren gainean ebaluatu eta kalifikatu behar izan dugu kasurik gehienetan. Horretarako, ikusi behar genituen ikasleak, beren familiak, aztertzeko, interpretatzeko zertan ari ziren, zer ari ziren ikasten. Eta hainbat familiak harriduraz entzun gaituzte lau hilabetez ikusi ez ditugun ikasleak deskribatzen, langileak izan diren ala ez, zer ikasi duten eta abar epaitzen eta zenbaite-tan nota jartzen. Egin behar genuen eta egin dugu. Ez dakit nahikoa galdetu ote diogun geure buruei zertarako, baina egin dugu.

Etixeratzea, batez ere, ikasketa garaia izan dela esango nuke, elkarrengandik ikasteko garaia. Inoiz baino nabarmenagoa bilakatu da elkarren beharra: lankideen artekoa; etxekoen eta hezitzaileen artekoa; neska-mutilen artekoa; gu eta ikasleen artekoa. Nago egoerak eskaini dizkigun ikasketa guztien artean be-

harrezkoenetako bat “esaten ez digutena entzuten ikastea” izan dela. Zer ari zitzaizkigun esaten ikasleak, adibidez, beren irudia belzten ari zirenean?


Uste genuenean kasik erantzun guztiak genituela, bizi-tzak galdera guztiak aldatu dizkigu, berriro. Ikusi eta entzun ezin dugun etsai suntsitzaile baten erasopean gaude. Hari aurre egiteko biluzik, ia. Txerto bat behar dugu elkarri berriro gerturatzeko, besarkatzeko. Elkarrekin bizitzeko, alegia. Baina hori lortu bitartean, gaixotasunarekin bizitzen ikasi beharko dugu, aurretik herrialde askotan beste gaixotasun batzuekin ari diren bezala.

Garai aproposa da gure curriculumak arakatzeko eta aztertzeko zenbat denbora eskaintzen diogun gure osasuna eta elikadura zaintzeari, higiene ohiturei, naturarekin dugun harremanari eta haren zaintzari, bizi ohitura osasuntsuak landu eta sustatzeari. Bizitza eta biziraupena erdigunean jartzen baldin baditugu, hori guztia ez litzateke aukera bat.

Ikerketek argi erakutsi digute gorputz osasuna eta emozionala estuki lotuta daudela. Ezagutza badaukagu. Zergatik ez ote gara ari, orduan, azpimarra jartzen emozioetan? Botik-kek babes eskasean utzi gaituztenean gure emozioak zaind-uz gure sistema immunologikoa indartuko dugula badaki- gun garaian?

Kito ikasturte arraro hau. Oporraldi garaia baliatu behar-ko genuke gure barrura begira jarri eta galdetzeko nola na- goen, zer emozio piztu zaizkidan krisi hilabete hauetan, nola onartu eta le- ku eman diedan... gure erresilientzia gaitasuna neurtzeko, azken batean. Perspektiba hartuz, irailean etxekoak, lankideak eta neska-mutilak zaintzea to- katuko zaigu, eta, horretar- rako, ezinbestekoa da alde- z aurretik guk gure burua zaintzea.

Ikasturte hasieran, “Saia- tu etxerako lanekin baino, jakin-min handiagorekin irten daitezen” utzi ziguten idatzirik horman. Zaila izan da mandatua betetzea. Osa- suna denentzat! •



Ikasle bat etxean lanean konfinamendu garaian. Raul BOGAJO | FOKU

{ koaderno } Iker Barandiaran

Bizi kultura

Asteon aspaldiko lagun batekin izan naiz terraza batean. Erabat nazkatuta dago laguna: urteak daramatza musika taldeekin eta kontzertuen antolaketan lanean, eta orain hasia zen behingoz hortik bizi-modua ganoraz ateratzen. Bada, urteetan ikasitakoa, pilatutakoa eta inbertitutakoa komun zuloatik behera joaten ari zaio, tantaz tanta, jada luze jotzen dabilen bolada ilun honetan.

Baina hori ez da bere pena bakarra: amorratuta dago, ikusita kulturarekin lotutako ogibideak erabat oztopatuta eta baldintzatuta dauden bitartean, beste gune asko –jarrita geunden terraza, adibidez– jendez lepo eta ia askatasun osoz daudela. Ez da justua, ez da zentzuzkoa eta arrazoi osoa dauka.

Are gehiago, oso haserre dago ez erakunde publikoek ez alderdi politikoek ez dutelako kultura babesteko keinurik egin. Komertzio eta negozio txikien aldeko ardura erakutsi zuten hasieran, baina kultura umezurtz gelditu da erabat, eta ez dago jakiterik aurrerantzean pauso gehiago eman ahal izango dituen. Izan ere, inork ez du kultura erdigunean jarri. Hala azaldu dit gordinki lagunak.

Asko eta asko dira, estu eta larri, kulturaren inguruan lan egiten dutenak, uste dugun baino askoz gehiago, familia asko: sortzaileez gain, horien lana modu batean zein bestean plazaratzea posible egiten dutenak (promotore, disko-gile, argitaratzaile, inprentako langile, aretoetako langile, diseinatzaile, soinu eta argi teknikari, tabernariak...). Lehendik ere ahulduta eta egoera prekarioan egonda, hilabete askotako diru-sarrera etenaldi honek akabatuko ditu betirako asko eta asko. Zenbat denbora iraun ahal izango dute horrela? Eta covid-19 izeneko amesgaizto hau egunen batean bukatuz gero, zer geldituko da gure kultura paisaia? Sortzaileak agian bai, baina nola eutsiko dio hamarkadetan gorpuztutako azpiegiturak?

Ni neu ere tarteka atsekabetzen naiz halako indarra eta gozamina eman izan diguten kontzerturik ez dagoelako. Eta horretaz bizi diren lagun guztiez oroitzen naizenean, pentsatzen dut haiek bai –eta ez neuk– di-

tuztela lur jota egoteko arrazoiak sobera. Baina dagoneko oso luze doa, eta bakoitzak badaki zeintzuk diren gozamina eta bizipoza ematen dioten indarguneak; hori ezin da alboratu.

Asteon hitz egin dut, beste hainbat eta hainbat bezala, musikaren bueltan ezagutu nuen lagun zahar batekin. Ez du edaten, ez ditu tabernak maite eta ez da inoiz hondartzara joaten. Lur jota dago, egoera berri honekin nazkatuta. Kontzertuak izan dira beti bere ihesbidea, salbazioa eta askabidea. Eta, jakina, horixe izan da luzaroan bere esparru soziala bermatu eta aberastu duen testuingurua. Orain ez du halakorik inon aurkitzen.

Horren harira, konfinamendu hasieran jasotako whatsapp meme eta antzekoen uholdetik, atentzioa eman zidan Batman eta Robin protagonista zituen irudi batek: gazteenak gaztelaniaz esaten zion maskaradunari covid-19aren erruz ezin zela kontzertuetara joan. Eta Batman-ek masaileko bat eman ostean leporatzen zion lehen ere ez zela kontzertuetara joaten.

Asko eta asko dira, estu eta larri,
kulturaren inguruan lan egiten dutenak,
familia asko. Lehen ere ahulduta zeuden
eta, orain, muturreko egoeran

Egia da ez dela garai batean bezainbeste jende joaten kontzertuetara, musika erdigunea den ohiko kontzertuetara behintzat, nahiz eta oraindik makina bat bagaren. Jakina, musikatik at bestelako osagai ugari dituzten jaialdi erraldoi horiek aparte uzten ditut, nahiz eta hor ere musikazaleak badiren.

Hala ere, egia da gauzen falta, horiek ez dauzkagunean sumatzen dugula. Eta agian zulo honetatik irte ten bagara, azpiegitura duinari eusten edo berau bererraitkitzen asmatzen badugu, posible izango da, baikor izanda, gizarteak kultura duintzea eta haren balioa nabarmentzea. Nahiko nuke hala izatea; merezita dute aspalditik. •

Nerabezaroan aditua den Jaume Funesek liburu berri bat kaleratu berri du. “Quiéreme cuando menos me lo merezca... porque es cuando más lo necesito” ospetsuaren segida da konfinamenduan inprentara heldu zen “Quiéreme... pero necesito que me cuentes más”. Gurasoei eta irakasleei zuzendutako lana da, nerabeak ulertzeko eta gazteoi laguntzeko begirada berriak eskaintzen dituen.

«Nola hezi musuak eta berrakadak emateko, drogetatik paso egiteko eta pertsona iza-

teko mundu digital batean».
Iradokitzailea da, baina ez dago formula magikorik, ezta?
Lehen liburua idatzi nuenean zin egin nuen ez nuela bigarren bat idatziko. Horregatik, nire izpiritu nerabea zergatik traizionatu dudan azaltzen duen kapitulu bat dago. Finean, 40 urteren ondoren, irtenbide gisa aurkitu dudana beste begirada bat da, gauzak beste modu batera pentsatzea. Gutxitan balio izaten dute konponbide erraz eta unibertsa-lek. Heroinaren garai gogorra bizi izan nuen, gazte justizian lan egin dut, eskoletan egon naiz, neska-mutilen laguntza klinikoa aritu naiz... eta ikasi dut hobe dela denbora baliat-


«Zergatik gara hain hipokritak? Gurasoei beti esaten diet: ‘zuek ez zarete guraso zoragarriak izatera iritsi, baina ikasi duzue Don Simon ardoarekin edo Errioxako erreserbako ardoarekin egindako kalimotxo bereizten, ezta?’»

tzea gurasoei hobeto sentitzen laguntzeko, ahal dutena eta egiten dakitena egiten laguntzea, gazteok pixkanaka aldatzen joango diren itxaropena eraikitzea eta ez esatea egun batetik bestera dena aldatuko dela. Bidea prozesu bat da eta nerabeen kasuan eskola-prozesua eta bizi-prozesua ez datoz bat ia inoiz; gainera, prozesuok ez datoz bat “kanpoko rolloekin” ere. Gazteokin eduki beharreko pazientzia grina handiarekin landu behar da, ez dago beste formularik.

Nerabeak eta arazoak beti lotuta daudela dirudi. Urrun joan gabe, pandemian zehar sarri kritikatu da gazteen erantzukizun falta.

Azken finean, nagusiok kontserbadore hipokritak garela erakustearen errudunak direlako gertatzen da. Egia esan, gazteok egunero esaten digute bizitza askotarikoa dela. Hartu alkoholaren gaia. Kapitulu bat eskaintzen diot liburuan beste droga batzuekin batera. Zergatik gara hain hipokritak? Gurasoei beti esaten diet: «zuek ez zarete guraso zoragarriak izatera iritsi, baina ikasi duzue Don Simon ardoarekin edo Errioxako erreserbako ardoarekin egindako kalimotxo bereizten, ezta?». Zergatik ez lan egin gazteok alkoholarekin ahalik eta harreman txikiena izan dezaten, baina izan dezaten? Gazteak kalean edateko elkartzen direnean, zergatik jartzen dugu arreta edatearekin lotutako arazoetan eta ez elkarrekin egoteko elkartzen diren gazteen arteko harremanen konplexutasunean?

Ikusten dugunaren sekuentzia ondorengoa da beti: lehenik arazo bat eta, gero, nerabe bat, helduok gauza bera egin-



Carlos GURPEGUI

«Gurasoak kezkatzeko gaude, baina nerabeek heldu positiboak behar dituzte inguruan, arazo bezala ikusten ez dituztenak»

go ez bagenu bezala. Egungo helduetatik zenbatek itxaron zuen 18 urte bete arte alkohola edateko? Gogaitzen gaituzte, arazo bat eraikitzen dugu, eta gero psikologoak, psikiatrak eta konpainia etortzen dira; etiketak asmatzen ditugu eta etiketa horiek jartzen aritzen gara gazte guztiei.

Badakite helduek nerabeekin komunikatzen?

Denetarik dago, baina, asko sinplifikatuz, hasteko ez dugu ahaleginik egiten esateko: «ea, beste argudio batzuk izan ditzakete, agian esaten dutenak badu beste zentzu bat». Beren munduan sartzen gara, baina guztia gure kategorietatik interpretatuz. Adibidez, horma batean “Maria askatu” jartzen badu, mezua “Maria askatu” da. Arriskuak aurretik jarri beharrean, zera azaldu beharko zaie: «iraultza egin nahi baduzu, akaso beste era batera egin beharko duzu». Ez dugu ahaleginik egiten nerabeen mundu ikuskeraz egutzeko, pentsatzeko posible dela gazteek egiten duten munduaren irakurketa gurea ez izatea.

Ahalegin hori egin dugu, era erlatiboan betiere, gizon eta emakumeen eremuan, eta egun inori ez zaio bururatzen munduaren ikuspegi maskulinoa bakarra denik –kontuan izanik maskulinoaren barruan ere asko daudela, noski–, baina genero ikuspegia onartzen dugu. Bada, zergatik ez dugu nerabeen ikuspegia onartzen? Kosta egiten zaigu, kosta egiten zaigu nerabeen ondoan egon eta tarte batean behintzat isilik egotea.

Guraso askok ulertu dute hori konfinamenduan, prisma moduko batekin begiratzen ikastea, kaleidoskopio bat ba-

genu bezala, askoz kolore gehiago dituztela ikustea, beren koloreak ez direla beltzak. Hurbiltasuna eta begirada anitzeko dosi hori falta zaigu.

«Begiradaren etsaitasuna arinduz hasten da dena», diozu liburuan.

Bai, eskolan ere gertatzen da. Irakasle askok oso ondo egin dute lan, noski, baina batzuetan haserretu egiten dira esaten diedanean: «ez da zure etsaia, nerabe bat besterik ez da, eta, gainera, gazteoi esker kobratzen duzu soldata hila-bete amaieran. Gainera, zu baino askoz gazteagoa da, eta gogoratu noizean behin inbidia ematen dizula eta zu ere bera bezalakoa izan zinela, ohorezko matrikulak ateratzen zituen ikaslea ez bazinen behintzat, eta ez dut uste hori ere nerabe batentzat onena denik. Zergatik ez diozu uzten, beraz, gazteok haserrarazten zaituztela esateari?».

Badakit nerabeek irakasleak haserrarazten dituztela, badakit gurasoak egun osoan “putatu” dituzten nagusiekin nazkatuta etxera heltzean gatazka sortzeko prest aurkitzen dituztela seme-alaba nerabeak, badakit une horretan jan egingo lituzketela, baina, ahal baduzu, arnasa hartu eta begirada atsegin bat jarri. Egungo egoeran besarkadak faltan botatzen ditugunean, poetaren esaldi ezagun hau gogoratzen dut: “lehen musua ez da ezpaineekin ematen, baizik eta begiradarekin”. Beste modu batean begiratu behar ditugu, neska-mutilok jasotzen dituzten begiraden *vademecum* bat egingo bagenu, begirada negatiboak izango bailirateke ia denak: ikasle txarra eskolan, edo irakasleak espero duena egiten ez duena, guztiz etsita-

ko ama, arazo iturri bezala ikusten duen auzokidea... Hainbeste dira pilatzen dituzten aurkako begiradak, ezen oso zaila dela gero lasaitzea eta mundua beste era batera ikustea.

Gazteek liskarrak eragiten ez dituzten helduak, inposizioa baliatzen ez dutenak, inguruan izatea oso garrantzitsua dela diozu.

Lehen liburuan behin eta berriaz aipatzen nuen hori nerabeekin lan egiteko logiken bilduma egitean. Eta uneotan planteatzen ari den eskola eredu berriarekin errepikatu beharko den ideia bat da, nahiz eta, nire ustez, azkenean betiko eredua nagusituko den. Pandemiaren ondoren eskolak ezberdina izan beharko luke. Eta nabarmendu dut eskola berri horretan bermatu beharko litzatekeela nerabe guztiek inguruan heldu positiboak izatea. Gurasoak kezkatzeko gaude, baina nerabeek beste begirada batzuk behar dituzte: arazoak testuinguruan jartzen dakien tutore ona, beti arazo iturri gisa begiratzen ez dituen; noizbait esateko dutena entzutera mugatzen den peditra zentzuduna; gatazka sortu nahi ez duen polizia... Nerabeek gertuko hainbat heldu izan behar dituzte, arazo gisa ikusten ez dituztenak.

Horrela bada, ikusiko duzu norengana joko duten behar izatekotan. Interneteko lagunen eta gurasoen artean, ekuaizio-sistemen eta maitemintzearen artean, kalean sortu den nahaspilaz, Internetez, bizitzaren edo sentitzen ari diren hitz egiteko aukera dago. Beste lagun batzuk behar dituzte nerabeek, baita erakundeetan ere. Gogoan dut hori egiten nuela Gipuzkoako Aldundia-

JAUME FUNES

NERABEZAROAN ADITUA


Psikologoa, hezitzailea, kazetaria... Jaume Funesek 40 urte baino gehiago eman ditu nerabeen ondoan, kalean, hezkuntzarloan edota epaitegietan. Euskal Herrian ere aritu izan da, heroinaren une gogorrenetan lehendabizi eta, egun, bide berrien diseinuan laguntzen.

Nerea GOTI

rentzat haur eta nerabeen baliabideei buruzko proiektuak garatu eta idatzi nituenean. Esaten genuen leku desberdinetan helduak egotea bermatu behar zela, bestela ikusten baitugu zer dagoen: pandemiaren aurretik *smartphone*-ak debekatzen saiatzen ari ziren, “gurasoen PIN”-a jarri nahi zuten, eta, orain, berriz, entzun besterik ez dago zer esaten ari diren... Gurasoei kontrola saltzen diete, segurtasuna, eta horrek ez du zerikusirik gazteek behar dutenarekin.

Nerabeak eta sexualitatea. Skolae programa aipatzen duzu liburuan, eta arlo hori etxera mugatzea eskubideak urratzea eta errealitatea faltsutzea dela diozu. Zergatik?

Pandemiaren aurretik oraindik toki batzuetan “gurasoen PIN”-aren inguruko eztabaida zegoen, Nafarroan Skolae programa bertan behera utzi berri dute auzitegiek... Efektu bel-durgarria sortzen dute: bakardadea. Zuk nahi duzuna esango duzu, baina, zure hautua edozein dela ere, zure semeak hainbat bideo porno ikusiko ditu, eta, nahi beste kontrol jarri arren, denak gaindituko ditu. Nerabeek euren buruak babestu eta mundua beren gurasoek ez bezala ikusteko duten eskubidea aldarrikatzen dut. Jende asko haserretuko dut, baina eskola seme-alabak gurasoengandik libratzeko asmatu zen. Nork esan du zure munduaren ikuspegia bakarra dela? Dena den, ez kezkatu, azkenean antz handiegia izango du zurekin. Baina bakardadeak defentsarik gabe uzten ditu, ez dute ikasten eta ez dute behar dutena deskubritzen. Horregatik nabarmendu dut beraien eskubideak urratzen direla, berezko bizitza izateko eskubi-



Carlos GURPEGUI

dea; haurtzaroaren eskubidea da, ez gurasoena eskusiboki.

«Zoriontasunen eta zoritzarren balantzea» egitearen garrantzia planteatzen duzu.

Eskolan martxan jartzen diren programek afektuak, sentsibilitateak, emozioak... lantzen dituzte. Baina, kontuz, nerabezaroan mezuak ez dira aski. Nerabeekin zaudela, zera esango dizute: «mezuak badakizkigu eta eskertzen ditugu, baina nork laguntzen gaitu? Norekin hitz egin dezaket mutil-lagun batekin arazo bat dudanean?

Norekin eztabaida dezaket maiteminduta egotearen eta larrua jotzearen arteko aldeaz? Norengana jo dezaket mutila banaiz eta ez badut argi nire sexu-harremanak nolakoak izan behar diren? Elkarrizketarako lurralde hori tutoretzaren inguruko eskola inguruneetan gertatu beharko litzateke, baita ingurune sozialetan ere: gaztelekuetan, gazte espazioetan, tailerretan, jardueretan... Nerabeek lasaitasun osoz bizi eta sentitzen dutenaz hitz egin dezaketen helduak izan behar dituzte inguruan.

Eskola eta familiaren arteko bitarteko espazio bat falta da?

Nafarroako eta EAEko hainbat kaleko hezitzaileekin bideo konferentzia izan dut, eskolaren eta kalearen arteko harremanaz. Batzuetan eskola gotorleku bat bezalakoa da; nerabeak barruan daude, nazkatuta, irten nahi dute baina ezin dute. Eta kanpokoak –hezitzaileak, gizarte langileak, begiraleak, terapeutak– eskolara sartzen saiatzen gara zerbait egitera, baina eskolak bere logikak ditu eta ez dago

«Nerabeek euren buruak babestu eta mundua beren gurasoek ez bezala ikusteko duten eskubidea aldarrikatzen dut. Jende asko haserretuko dut, baina eskola seme-alabak gurasoengandik libratzeko asmatu zen. Nork esan du zure munduaren ikuspegia bakarra dela?»



modurik. Jon Etxebarriaren metafora bat erabiltzen dut hori azaltzeko. Metafora horrek dio tarteko lurralde moduko bat eraiki behar dugula, mugak iragazkor bihurtu behar ditugula; muga-eremuak izan behar dira, baina eremu irekiak izan behar dira. Hau da, nerabeak joan-etorrian aritu behar dira, eta beste profesional batzuek sartzeko aukera izan behar dute, hitz egin eta eztabaidatzeko. Kortse akademikorik eta gurasoen gehiegizko babesik gabeko eremuak izan behar dira.

Gorputz okerrak

Miren Azkarate
Badiola

Iritsi da uda. Aurtengoa arraroa edo hobeto esanda, ezohikoa. Hondartzetan sartzeko aforoa, herriko eta auzoetako festarik ez, bidaiatzeko arazoak, hauteskundeak... Inoiz ikusi ez dugun errealitatea dugu 2020. urteko uda honetan, jada pasatako udaberriarekin jakin bagenekiena, baina ikusi arte guztiz sinistu ez duguna.

Inoiz imajinatuko ez genituen agertokiak, urtea hasi zenetik mundu guztian zehar ikus daitezkeenak, ez da udaren ezaugarria eskusiboki. Nire amonak esaten zuen bezala, prest egon behar da datorrena datorrela aurre egiteko.

Hala ere, badira hain ezohikoak ez direnak ere, urtero-urtero errepikatzen direnak eta aurtengoan ere ez direna salbuespen izan: udarako dieta milagroak. Bereziki emakumeei zuzendutako iragarki eta kanpainez ari naiz. Gorputz lirain, polit, argal eta perfektu bat izateko dieten bonbardaketa zuzenaz mintzo naiz: zer jan, zein kirol egin eta tankerako argazki edo bideoak nonahi! Gainerako gorputzak, hor azaltzen ez diren guztiak ez desiragarriak eta onartezinak balira bezala. Gorputz zuzena gorputz okerraren alboan. Eta aurtengoan Bilgune Feministak ekainaren 28an Harrotasunaren Egunean erabili duen leloa erabiliz eta goraipatuz, “hemen

gorputz oker bakarra gorputz polizialarena da”. Betiko iltzatuta geratuko zaidan leloa, bereziki ona iruditzen zaidako eta arrazoi guztia duelako. Niretzat, gainontzean, ez baita gorputz okerrik; ez baita gorputz oker bat potoloa dena, edo iletsua dena, edo identitate ez normatibo bat adierazten duena, edo honen edo harekin edo haiekin oheratzen dena. Horiek dira gorputz zuzenak niretzat, norbera ongi sentiarazten dutenak, azken finean, askeak direnak. Eta horrek Donostiako Koordinadora Transmarikabollo Feministaren beste lelo gogoangarri bat ekarri dit burura: “askatasuna ez da kontsumitzen, borrokatu egiten da”. Ni prest! •

Urrunetik gidatua

Antton Izagirre

Hauteskunde aurreko aldi luze baten amaierara heldu gara. Ofizialki hamabost egun iraundituen kanpainak, hilabete luzeak eman ditu gure artean. Ilusio handirik sortu ez duela badiogu ere, ez da oharkabea pasa.

Ontzat ematen dugu, kanpainako ekitaldiak jendartearen boto eskubide askean eragiteko saiakerak direla esaten digutenean. Komunikabide publikoen eta diru publikoaren erabilera ontzat ematen ditugu. Berdintasunean, lehia demokratikoa sustatzen ari diren irudia helarazi digute. Ezarritako hauteskunde sistemen irizpide kritiko ahula dugu-lakoan nago.

Joko politiko horretan, aldian-aldian, hautesleriaren iritzia jasotzeko aitza-

kian, mozorroturiko inkesten emaitzak tartekatzen dizkigute. Zientzia enpirikoan oinarrituriko ariketak omen dira. Baina zer dago horren azpian? Zenbakiak neutralak ote?

Nire ustez inkesta horien emaitzak eta aditzera emateko moduak arau sortzaileak bilakatzen dira. Ez dago boterean dagoenarentzat inkesten aldeko emaitzak baino kanpaina hoberik.

Cristina Bicchieri filosofo andere italiarrak adierazi bezala, gertaera sozial jakin baten gaineko espektatiba enpirikoek norma edo araua sortzen dute. Jorera jakin bat izango duen pertsona kopuruaren araberrako ustea, arau sozial bihurtzen omen da. Horrela bada, inkestetako boto joera iragarle ez baino, erakarle bihurtuko litzateke.

Beraz, hara hor, inkestak jendartearen iritzia azaleratzeko ala jendartearen iritzia bideratzeko tresna diren arteko ezbaia. Kontua ez da zientzialaria eta soziologoaren egitekoa auzitan jartzea, ordaintzen duenaren borondatea eta erabilera bistaratzea baizik. Azken hauen ustetan, botoa irabazleen norabide berean ematea erabat naturala litzateke. Joera nagusia arau sozial bilakatzea dute helburu. Irabazlearen zaldira igotzeko gonbidapena eginga digute.

Zer gertatuko litzateke, ordea, hilabete luze hauetan ikusi dugunak eta erakutsi digutenak aldatu izan balitu eta aukera berriak sortuko balira? Arau sozialak ere aldatzeko egiten dira. •



Izaro Goienetxea Urkizu

Donostiako UPV/EHUko Informatika Fakultateko ikertzailea

Aurrerapen teknologikoak, zeinu hizkuntza automatikoki itzultzeko

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, munduan 466 milioi pertsona inguruk daukate entzumen urritasuna, munduko biztanle guztien %5ek baino gehiagok, eta zenbaki hori hazten joango dela aurreikusten dute. Pertsona horietako askok zein ahozko hizkuntza erabiltzeko arazoak dauzkaten pertsonen zeinu hizkuntza erabiltzen dute komunikazio tresna gisa. Baina ez zeinu hizkuntza berbera. Jende askok aurka-koa uste badu ere, zeinu hizkuntza ez da nazioartekoa, munduan 300 baino gehiago daude.


Orokorrean, zeinu hizkuntzen erabilera ez dago behar litzatekeen bezain zabalduta, eta erabiltzaileek zailtasunak izaten dituzte zenbait ingurune edo egoeratan interpreterik gabe komunikatzeko, entzumen arazorik ez duen jendearen gehiengoak ez baitu hizkuntza ezagutzen. Arazo horiek ahal den neurrian konpontzen saiatzeko hainbat soluzio teknologiko garatu dira. Los Angeleseko Unibertsitatean (UCLA), eskularru bat garatu berri dute, eskuarekin egindako zeinu hizkuntza amerikarreko zeinuak ingelesera itzultzen dituen denbora errealean. Horretarako, sentso batzuk ditu hatzetan, mugimenduak seinale elektriko bihurtzen dituztenak, eta seinale horiek eskumuturrean kokatzen den plaka txiki batera bidaltzen ditu. Gero, plaka hori telefono mugikorrera konektatzen da itzulpena egiteko. Eskularrua eta erabiltzen dituen sentsoak oso arinak dira, eta 660 zeinu eta patroia identifikatu eta itzultzeko gai dela esaten dute sortzaileek. Aurretik ere aurkeztu dira antzeko zenbait eskularru, baina adituek diote ez direla aski zeinu hizkuntza osoki errepresentatzeko.

Lan konplexua izaten da zeinu hizkuntzatik ahozko hizkuntzarako itzulpena egitea, zeinu hizkuntza bera ere konplexua baita. Zeinu hizkuntzak, ahozko hizkuntzak bezala, egitura gramatikalak dauzkaten lengoaia naturalak dira, eta, eskuekin egiten diren keinuz gain, beste hainbat faktorek hartzen dute parte mezu bat transmititzerakoan; eskuen kokapenak, gorputz-enborraren posizioak eta aurpegiarekin egiten diren keinuek, esaterako. Eskularru batek ezin ditu faktore horiek guztiak antzeman, eta benetan ongi funtzionatu duen sistemak konplexuagoa izan beharko luke.

Showleap enpresa zeinu hizkuntza espainiarretik ahozko hizkuntzara itzulpen automatikoa egiten duen tresna bat garatzen ari da. Tresna honen helburua ahozko hizkuntza erabili ezin duen jendeak hainbat

tramite edo gestio egin ahal izatea da, era autonomoan, interpreterik eraman behar izan gabe. Horretarako kamera bat erabiltzen du, ikusmen artifizialeko teknikak erabiliz zeinu hizkuntzan egindako keinuak antzeman eta hainbat sare neuronal erabilita itzulpena egiteko. Beste sistema batzuk kontrako bidea egiten saiatzen dira, lengoaia naturaletik zeinu hizkuntzarako itzulpena egiten, horretarako abatar birtualak erabiliz.

Adituek diote garrantzitsua dela honelako soluzioak garatzeko orduan zeinu hizkuntzaren erabiltzaileak kontuan hartzea, gehienetan ez baita horrela izaten, eta horrek diseinu akats ugari egitea ekartzen du. Etorkizunean zeinu hizkuntzaren erabilera gehiago zabaltzeko bitartean, honelako soluzioak garatu eta zabaltzea beharrezkoa izango da guztion arteko komunikazioa errazteko. •




Zeinu hizkuntza erabili beharra dutenentzat erraztasunak topatu nahian dabil teknologia.

GAUR8

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



Pascual MARIN. MARIN FUNTSA. KUTXATEKA

1939KO SANFERMINAK, ERREPRESIOAREN ETA MINAREN GAINETIK

1939an amaitu berria zen gerra zibila. Nafarroan 1936tik matxinatuen errepresioa ikaragarria izan zen. 1939an, militarrek eta haien ingurukoek sanferminak ospatu zituzten, herri-tar askoren errepresioaren eta saminaren gainetik. 3.000 nafar baino gehiago hil zituzten aurreko urteetan, horietako 300 Iruñean bertan. Desagertuak eta espetxeratuak ere asko ziren. Alkatea Tomas Mata karlista zen. 1939ko urte horretan txupinazoa Gaztelu Plazatik bota zen, ohikoa zen bezala. Joaquin Ilundain zinegotzia izan zen txupinazoaren metxa piztu zuena. 1931 eta 1936 bitartean, Errepublikara garaian, Juan Etxepare Aramendiak jaurti zuen suziria. Gerra zibilaren hasieran matxinatuek hil egin zuten. Garaiko prentsak, sanferminetako beste ekitaldi bat gehiago balitz bezala, Artaxoako erreketeei egindako omenaldia nabarmentzen zuen, baita Rodeznoko kondea eta Juan Antonio Suanzes bezalako ministro frankistak eta Rafael Garcia Valiño espainiar armadako jenerala zezenketetara joan zirela ere. Franco Gipuzkoako seme eta Irungo ohorezko alkate izendatzea egun horietako beste albiste batzuk izan ziren. Horiez gain, Mussoliniren suhia eta Galeazzo Ciano Italiako Kanpo Arazoetako ministroa Donostiara iritsi zirela jakinarazi zuen prentsak, Serrano Suñer ministro frankistarekin batera. Horixe zen giroa. Goiko irudia 1939ko uztailaren 7ko goizeko entzierroan egingo dago. Argazkiaren egile gisa Donostian bizi zen Pascual Marin tuterarra azaltzen da. Ziur aski, baina, bere argazkilaritza-negozioko langileren batek egingo zuen argazkia; izan ere, Pascual Marin galdutako bala batek zauritu zuen 1937an Gernika inguruan, eta eskuineko besoa erabili ezinik geratu zen bizitza osorako.

GAUR8

ireki gure leihoa

